

ORIXE BHIko Zuzendaritzaren Oharra

Tolosan, 2019ko urtarrilaren 24an

Orixeko ikasle batzuk TASen izenpean grabatu eta urtarrilaren 14ko astean Youtube bitartez sareratutako bideoari eta haren ondorengo ekintzei dagokienez, honako hau argitu nahi diogu Orixeko ikas komunitate osoari eta, bide batez, interesatutako guztiei:

1. Bideoan agertzen diren ikasleak Orixeko ikasleak badira ere, TAS izenpean egiten dituzten adierazpen horiek ez dituzte ikastetxeko forotan aldarrikatu edo eskatu.
2. Ikastetxeko eremuan egindako grabazio hori egiteko baimenik ez zuten eta, hein horretan, ikasle horiek gure araudiaren arabera arau haustea egin zuten, beraz, gainontzeko arau hausteekin bezala, barne araudiaren (AJA) arabera erantzungo zaie.
3. Horrez gain, bideoaren sareratzea ere baimenik gabe egin zuten, adin txikikoak izan arren. Bideoa erretiratzeko eskaera egin diegu eta beraien gurasoak jakinaren gainean jarri ditugu. Kasu honetan ere AJAren arabera jokatu dugu.
4. Edukiei dagokionez, Orixeko ebaluazio irizpideei buruzko hainbat xehetasun ez dira zuzenak. Gure programazioak ikas-komunitatearen eskura daude eta ikuskariaren oniritzia daukate.
5. Orixeko ikas-komunitateko kide asko minduta eta kezkatuta gaude. Eztabaidak tokiz kanpo, zuzenak ez diren adierazpenak tartekatuz egin dira eta kontrasterik gabe zabaldu dira eguneroko elkarbizitzan laguntzen ez duten jarrerak bultzatuaz. Beraien burua bideoan identifikatuta ikusi duten eta minduta dauden irakasle horiei gure babesa adierazi nahi diegu.
6. Ikastetxe barruan, etorkizunean, baimenik gabe burutu daitezkeen era honetako ekintzak ez dira onartuko eta araudiaren arabera jokatu da.
7. Era berean, ikastetxeko foroak eta prozedurak erabiltzera gonbidatzen zaituztegu ikas-komunitateko partaide guztiok, dituzuen kezka eta hobekuntza proposamenak bideratuaz dagokion tokian.
8. Azkenik, inguru hezitzailea denon artean eraikitzen dugunez, gurasoei ere, nola ez, eskatu nahi dizuegu ikasleekin gai hauetaz (komunikazio erak eta jarrerak, ikastetxeko prozedurak jarraitzea, eskubideen eta betebeharren arabera jokatzeara...) soseguz eta zentzuz hitz egitea.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta gugan jarritako konfidantzarengatik.

Joserra Zalakain

Orixeko BHIko zuzendaria

Nota de la Dirección del IES ORIXE

Tolosa, 24 de enero de 2019.

En relación al video que un grupo de alumn@s de Orixe grabó el pasado lunes, 14 de enero, subió a YouTube y a todos los acontecimientos posteriores, queremos comunicar a toda la comunidad educativa y a toda persona interesada lo siguiente:

1. Las declaraciones que ha realizado ese grupo de alumnos de Orixe, el cual se expresa bajo las siglas de TAS, no las ha manifestado ni pedido en ningún foro del instituto.
2. La grabación realizada en las instalaciones del instituto se hizo sin ninguna petición ni autorización previa y, por tanto, en contra de las normas en vigor del Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF). En ese sentido, e igual que con cualquier otra infracción, se tomarán las medidas oportunas de acuerdo a dicho reglamento.
3. Además, a pesar de que el alumnado era menor de edad, lo colgaron en la red (Internet) sin ningún tipo de permiso. Se les pidió que retiraran el video y se comunicó todo a las familias respectivas. En este caso también actuaremos de acuerdo al ROF del centro.
4. En relación al contenido del video, algunos de los aspectos que se mencionan relativos al apartado de criterios de evaluación de dos departamentos no se corresponden a la realidad.. Nuestras programaciones están a disposición de la comunidad educativa y han sido aprobadas por el inspector de referencia.
5. Los miembros de la comunidad educativa de Orixe estamos dolidos y preocupados. No es de recibo difundir discusiones fuera de contexto, haciendo declaraciones no correctas, sin ningún tipo de contraste e ir propagando actitudes que no son admisibles en nuestra convivencia diaria. En este sentido, queremos manifestar nuestro total apoyo al profesorado del centro que se ha visto identificado en el video y está dolido.
6. Cualquier tipo de actividad de esta naturaleza que se realice en el centro sin permiso será inaceptable y actuaremos de acuerdo a nuestro reglamento.
7. Del mismo modo, invitamos a todos los componentes de la comunidad educativa para que se utilicen los foros y procedimientos del centro, planteando las oportunas quejas y propuestas de mejora a través de los cauces establecidos al efecto y con el debido respeto.
8. Finalmente, puesto que tod@s somos parte de la comunidad educativa, pedimos, especialmente a los padres y madres, que habléis sosegadamente y con sentido con vuestros hijos e hijas sobre estos temas (formas y actitudes en cuanto a la comunicación, seguir los procedimientos establecidos en el centro, actuar de acuerdo a los derechos y obligaciones, ...).

Muchas gracias por vuestra atención y por la confianza depositada en nosotros.

Joserra Zalakain

Director del IES Orixe